

BIDEGIK 6 ERREITARA ZABALDUKO DU AP-8 AUTOBIDEA IRUN VENTAS ETA BEHOBIA ARTEAN

Autobidea hiru erreitara zabalduko da 7 kilometroko zati batetan zehar Biriatouko mugaraino, etorkizunean zabaldua izango den A-63 autobide frantsesarekin bat egiteko

Eraikuntza proiektuak Irunen autobidera sartzeko lotune berri baten kokapena aztertuko du, gaur egungo Ventas eta Behobiako lotuneen erdibidean

Handitzeak Oiartzun-Ventas 3 erreiko zatiarekin, Donostiako 2. Ingurabidearekin eta Orio-Aritzeta 3 erreiko zatiarekin egingo du bat, AP-1/AP-8 korridoreak nazioarteko garraiorako Euskadiko iparra-hegoa ardatz nagusi bezala duen papera finkatuz

Errepidea: AP-8

Zatia: Ventas Irun / Behobia

Udalerrria: Irun

Luzera: 7 kilometro

Proiektua: Behobia eta Irun Ventas arteko AP-8 autobidea 6 erreitara handitzea

Egoera: Eraikuntza proiektua (lizitazioan)

Inbertsioa: 1,4 milioi euro (eraikuntza proiektuaren erredakzioa)

Epea: 12 hilabete (eraikuntza proiektuaren erredakzioa)

AP-8 Ventas-Behobia trafikoa: 22. 000 ibilgailu eguneko

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentziaren bidez, sei erreitara (hiru norabide bakoitzeko) handituko du AP-8 autobidea 7 kilometroko tarte batean, Irun Ventas enborreko estazioa eta A-63 autobide frantsesaren loturan (Biriatou), Behobia eremuan.

Bidegiko Administrazio Kontseiluak AP-8 Behobia eta Irun Ventas artean sei erreitara handitzea ahalbidetuko duen eraikuntza proiektuaren erredakzioa lizitaziora ateratzea erabaki du. Eraikuntza proiektuaren erredakzioak 1,4 milioi euroko aurrekontua du eta proiektuaren erredakzioa garatzeko epea 12 hilabetekoa da.

Proiektuak trazatua, lur-berdinketa, egiturak, drainatzeak, bidezorua, eta sei erreitara handitzeko egin behar diren gainerako obren definizio zehatza egiteaz gain, Irunen autobidera sartzeko lotune berri baten kokalekua aztertuko du, hirigunetik gertuago aurkitzen den eremu batean, gaur egun martxan dauden Irun Ventas eta Behobia lotuneen artean.

AP-8 adierazitako zatian handituz, A-63 autobide frantsesean garatzen ari den hantzeko handitzearekin lotu ahal izango da. A-63ko handitzea 40 kilometroko luzera duen zati batean burutuko da, Ondres eta Biriadou artean eta Autoroutes du Sud de la France (ASF) enpresak fase ezberdinetan garatuko du datozen urteetan.

Behobia eta Irun Ventas arteko AP-8ren handitzea uztartu egingo da azken urteetan garatu diren beste handitze batzuekin (Oiartzun-Ventas 3 erreiko zatia, Donostiako 2. Ingurabidea eta Orio-Aritzeta 3 erreiko zatia) eta autobide frantsesari jarraikortasuna emango dio, AP-1/AP-8 korridoreak nazioarteko garraiorako Euskadiko iparra-hegoa komunikazio ardatz nagusi bezala duen papera finkatuz.